Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroak 23.

Vitoria-Gasteiz a 23 de noviembre de 2021.

**BILDU DIRA**

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Antonio Aiz Salazar jn. eta Laudioko Alkate Udalburua Ander Añibarro Maestre jn.

**SE REUNEN**

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Ander Añibarro Maestre, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Laudio

**ESKU HARTU DUTE**

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

Bigarrenak, udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bi aldeek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, horretarako

**INTERVIENEN**

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

## HONAKOA AZALTZEN DUTE

**LEHENENGOA.-** Euskal Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen esklusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorrekotzat jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtzioak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtzioak eta bitartekoak EAEra eskualdatu ziren, besteak beste, toki-korporazioei laguntza ematekoa Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketa horiek EAEko Administrazioak interesgarri jotzen dituenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez dionean eta legez Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen ez direnean.

**BIGARRENA.-** Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumen gaietako eskumena duen sailari

## EXPONEN

**PRIMERO.-** Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

**SEGUNDO.-** Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho privado

atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, eta lege horren arabera, Euskadin uraren inguruko politika gauzatzea du xede agentzia horrek. Horri dagokio, besteak beste, Estatuko Administrazioak transferitu, eskuordetzan eman edo Agentziaren esku utzitako funtzioak gauzatzea.

adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

**HIRUGARRENA.-** 2012ko urriaren 30ean, Uraren Euskal Agentziak eta Laudioko Udalak lankidetzarako esparru-akordioa sinatu zuten, Laudioko udalerrian uholdeen aurka babesteko lanak egiteko. Akordio horrek San Juan errekan egin beharreko jarduketak jasotzen ditu, eta Zumalakarregi etorbidearen eta bokalearen arteko tarteak lehentasuna duela adierazten du. Era berean, esparru-akordioaren arabera, Uraren Euskal Agentziari zegokion eraikuntza-proiektuak idatzi, izapidetu eta onartzea, bai eta jarduketak gauzatu eta finantzatzea ere.

**TERCERO.-** Que, con fecha 30 de octubre de 2012, la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Laudio suscribieron el Acuerdo Marco de colaboración para la ejecución de las obras de defensa contra inundaciones en el término municipal de Laudio. Dicho acuerdo incluye las actuaciones a realizar en el arroyo San Juan, indicando que tiene prioridad el tramo entre la Avenida Zumalakarregi y la desembocadura. Asimismo, correspondía a la Agencia Vasca del Agua la redacción, tramitación y aprobación de los proyectos constructivos, así como la ejecución y financiación de las actuaciones.

**LAUGARRENA.-** Uraren Euskal Agentziak "Laudioko (Araba), Zumalakarregi-Goikoplaza tartean, San Juan errekaren ibilguaren egokitzapen hidraulikoa eta ingurumen-hobekuntza egiteko proiektua" dauka, zeina jendaurrean jarri eta behin betiko onartu baitzen 2021eko abuztuaren 25ean. Proiektu honetan jasotako jarduketak Laudioko Udalarekin lankidetzan diseinatu

**CUARTO.-** Que la Agencia Vasca del Agua dispone del "Proyecto de acondicionamiento hidráulico y mejora ambiental del cauce del arroyo San Juan en Llodio (Álava). Tramo Zumalakarregi-Goikoplaza", que ha sido sometido a información pública y aprobado definitivamente el 25 de agosto de 2021. Las actuaciones contempladas en este proyecto han sido diseñadas en colaboración con el

dira, eta, beraz, udaleko hirigintza-plangintzan horiek gauzatzeko ezarritako zerrenda errespetatu da.

Ayuntamiento de Laudio, de manera que se ha respetado la franja establecida para su ejecución en el planeamiento urbanístico municipal.

**BOSGARRENA.-** Urtarrilaren 15eko 20/2016 Errege Dekretuak onartutako Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiko uholde-arriskua kudeatzeko planaren arabera, Laudioko hirigunea ES017-BIZ-9-1 Uholde Arrisku Handiko Eremuaren (UAHE) barruan dago. Eremu honetako arriskua murrizteko zehaztutako egiturazko neurrien artean aipatu esparru-akordioan jasotako jarduerak daude.

**QUINTO.-** Que, de acuerdo con el Plan de gestión del riesgo de inundación de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, aprobado por Real Decreto 20/2016, de 15 de enero, el núcleo urbano de Laudio se encuentra afectado por el Área de Riesgo Potencial Significativo de Inundación (ARPSI) ES017-BIZ-9-1. Entre las medidas estructurales definidas para la reducción del riesgo de este ámbito se encuentran las actuaciones recogidas en el citado Acuerdo Marco.

**SEIGARRENA.-** Horrenbestez, Uraren Euskal Agentziak eta Laudioko Udalak LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

**SEXTO.-** Que, por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua, y el Ayuntamiento de Laudio proceden a la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, con arreglo a las siguientes

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.**

Hitzarmen honen xedea da Uraren Euskal Agentziak eta Laudioko Udalak "Laudioko (Araba), Zumalakarregi-Goikoplaza tartean, San Juan errekaren ibilguaren egokitzapen

## CLÁUSULAS

**PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO**

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Laudio se comprometen a colaborar en la ejecución de

hidraulikoa eta ingurumen-hobekuntza egiteko proiektua" gauzatzeko elkarlanean nola jardungo duten arautzea.

las obras del "Proyecto de acondicionamiento hidráulico y mejora ambiental del cauce del arroyo San Juan en Llodio (Álava). Tramo Zumalakarregi-Goikoplaza".

**BIGARRENA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.**

Gauzatu beharreko jarduketak, hurrengo klausuletan ezarritako baldintzetan egikarituko direnak, hauek dira: ingurunearen egokitzapen hidraulikoa egingo da, eta sekzio nahikoa sortuko da San Juan errekak 100 urteko errepikatze-denborako uraldirako sortutako uholde-arriskua saihesteko. Horretarako, erreka horri aire zabaleko ibilgu bat emango zaio, eta egungo trazadurak duen estalduraren ordez pasabide berri eta bakarra jarriko da Goikoplaza kalearekiko bidegurutzean; aldi berean, jarduketa horiek ibilguaren eta ibaiertzen paisaia eta ingurumena berreskuratzea sustatuko dute, gaur egun erabat degradatuta baitaude

Proiektua gauzatzeko aurrekontua 1.071.865,31 eurokoa da.

**SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.**

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, consisten en el acondicionamiento hidráulico del entorno, generando una sección suficiente para evitar la inundabilidad provocada por el arroyo San Juan para la avenida de periodo de retorno de 100 años. Para ello, se dotará a dicho arroyo de un cauce a cielo abierto, sustituyendo la cobertura que presenta el trazado actual por un nuevo y único paso en el cruce con la calle Goikoplaza; al mismo tiempo, estas actuaciones promoverán la recuperación paisajista y medioambiental del cauce y de las márgenes, que actualmente se encuentran totalmente degradadas.

El presupuesto de ejecución del proyecto asciende a 1.071.865,31 €.

**HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK**

Uraren Euskal Agentziak honako konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

**TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) "Laudioko (Araba), Zumalakarregi-Goikoplaza tartean, San Juan errekaren ibilguaren egokitzapen hidraulikoa eta ingurumen-hobekuntza egiteko proiektua"-ren lanak kontratatzea.

a) Contratar las obras del "Proyecto de acondicionamiento hidráulico y mejora ambiental del cauce del arroyo San Juan en Llodio (Álava). Tramo Zumalakarregi-Goikoplaza".

b) Aipatutako obrak zuzentzea eta ikuskapen teknikoa egitea.

b) Dirigir e inspeccionar técnicamente la ejecución de las citadas obras.

c) Lanen benetako kostuaren %100 finantzatu eta ordaintzea, zenbatekoa MILIOI BAT ETA HIRUROGEITA HAMAIKA MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HOGEITA HAMAIKA ZENTIMO (1.071.865,31 €) delarik. Zenbateko hori ondorengo kredituekin ordainduko da: 2021. urtean, ordainketa-kreditu baten bidez EHUN MILA EURO (100.000 €), eta 2022. urtean, konpromiso-kreditu baten bidez, BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HOGEITA HAMAIKA ZENTIMO (971.865,31 €), Agentziaren aurrekontuko 23180116 partidaren kargura finantzatuko dena.

c) Financiar y abonar el 100% del coste efectivo de las obras, que asciende a UN MILLÓN SETENTA Y UN MIL OCHOCIENTOS SESENTA Y CINCO EUROS CON TREINTA Y UN CÉNTIMOS (1.071.865,31 €), correspondientes a un crédito de pago para 2021 de CIENMIL EUROS (100.000,00 €) y un crédito de compromiso para 2022 de NOVECIENTOS SETENTA Y UN MIL OCHOCIENTOS SESENTA Y CINCO EUROS CON TREINTA Y UN CÉNTIMOS (971.865,31 €), que se financiarán con cargo a la partida 23180116 del presupuesto de la Agencia.

**LAUGARRENA.- LAUDIOKO UDALAREN BETEBEHARRAK.**

**CUARTA.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE LAUDIO.**

Laudioko Udalak honako betebeharrak izango ditu:

El Ayuntamiento de Laudio se obliga a:

a) Lan hidraulikoak egiteko beharrezko lursailak Uraren Euskal Agentziaren esku jartzea, Agentzia horrek lanak egikaritzapen-

a) Poner a disposición de la Agencia Vasca del Agua la totalidad de los terrenos afectados por las obras hidráulicas, con el fin

programaren arabera gauzatu ahal izan ditzan.

de que aquella pueda acometer su ejecución de conformidad con el programa de ejecución de las mismas.

b) Uraren Euskal Agentziatik zubi berria eta egindako bideak jasotzea, hark bukatu eta haren bidez jaso ondoren. Lan horiek udal-jabegoan geratuko dira, eta Laudioko Udalari obligatuko zaio lan horiek modu egokian kudeatzea eta mantentzea, eta Udalak konpromisoa hartuko du aurrekontu-aurreikuspenak egiteko eta horretarako behar diren gainerako neurriak hartzeko.

b) Recibir de la Agencia Vasca del Agua el nuevo puente y los viales ejecutados, una vez terminados y recibidos por ella, infraestructuras que quedarán en propiedad local, obligándose el Ayuntamiento de Laudio, a su gestión y mantenimiento adecuado, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

c) Mantentze- eta garbiketa-lanak aldiro egitea, entregatzen diren azpiegitura hidraulikoen zaintzeko.

c) Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las infraestructuras hidráulicas que se entregan.

**BOSGARRENA.- OBRAK KONTRATATU, ZUZENDU ETA IKUSKATZEA.**

**QUINTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN, INSPECCIÓN Y EXPLOTACIÓN DE LAS OBRAS.**

1.- Uraren Euskal Agentzia arduratuko da obrak kontratatu, zuzendu eta teknikoki ikuskatzeaz, eta eginkizun horiek ordenamendu juridikoak baimendutako edozein erakunderen bitartez kudeatu ahal izango ditu.

1.- Será responsable de la contratación, dirección e inspección técnica de la ejecución de las obras recogidas en la cláusula tercera la Agencia Vasca del Agua, que podrá gestionar tales atribuciones a través de cualquiera de las formas autorizadas por el ordenamiento jurídico.

2.- Era berean, Agentziak izango du betearazi beharreko lanak zuzentzeko eta teknikoki ikuskatzeko ardura.

2.- Corresponderá asimismo a la Agencia la dirección e inspección técnica de las obras a ejecutar.

3.- Agentziak obrak jasotzen dituenean, Laudioko Udalaren esku jarriko ditu, laugarren klausularen e) letran adierazitakoaren arabera ustiatu eta kontserbatzeko.

3.- Recibidas las obras por la Agencia, ésta las pondrá a disposición del Ayuntamiento de Laudio para su posterior explotación y conservación conforme a lo indicado en la letra e) de la cláusula cuarta.

Obrak udalaren esku uzteko eta udalak behar bezala zaindu eta ustiatuko dituela hitz emateko akta bat egingo da.

La transmisión de la posesión de las obras al ayuntamiento y su compromiso de adecuada conservación y explotación se articularán mediante un acta.

**SEIGARRENA.- JARDUNEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.**

**SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.**

1.- Lankidetza-hitzarmen honen jarraipen-batzordea eratuko da. Batzordekideak lau izango dira: bi Uraren Euskal Agentziakoak; beste biak, berriz, Laudioko Udalekoak. Lankidetza-hitzarmen hau sinatu duten aldeek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, honako eginkizun hauek betetzeko:

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio de colaboración compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Ayuntamiento de Laudio, que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Jarraipena egitea hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak zuzen betetzeko, eta irizpideak eta bitartekoak ezartzea alderdiek elkarri informazioa eman diezaioten eta dagozkien konpromisoak egoki bete ditzaten.

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio de colaboración, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Kasu bakoitzean behar diren izapideak azkar egitea eragotz dezaketen oztopoak kentzeko bideak ematea.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Lankidetza-hitzarmen honen xedeko jarduketak beteko direla bermatzeko behar diren neurriak jakinaraztea eta proposatzea.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio de colaboración.

d) Lankidetza-hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio- eta betearazpen-arazoak konpontzen saiatzea.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el presente convenio de colaboración.

2.- Lankidetza-hitzarmena indarrean dagoen bitartean, aldeetako edozeinek proposatuta elkartuko da batzordea, jarduketak ondo joan daitezen behar adina bider. Presidentetza eta idazkaritza txandaka beteko dituzte, batzordeak berak bestelakorik adosten ez badu. Kideek aho batez onartu beharko dituzte akordioak eta bilera-quorumak.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma, salvo acuerdo distinto expreso de la propia Comisión. Los quórums de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- Jarraipen Batzordearentzat espreski jasotzen ez dituen gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.**

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio-arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa bete beharko da.

**SÉPTIMA.- RÉGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.**

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

**ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatiko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak, eta ordutik behartuko ditu parte-hartzaileak, eta hura burutzeko jardunen kontratazioa behin betiko kitatu eta ordaindu arte iraungo du.

**OCTAVA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.**

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la conclusión y entrega de las actuaciones objeto de este convenio, con un máximo inicial de cuatro años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

**BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA.**

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

2.- Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz betetzeko eskatzeko edo hitzarmena hausteko eskatzeko. Hitzarmena hautsiz gero, aldeek zehaztuko dute nola amaituko diren eta ordainduko diren gauzatzen ari diren obrak.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

**NOVENA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.**

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

***URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA* / EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

ZUZENDARI NAGUSIA
ura
ur agentzia
agencia vasca del agua
DIRECTOR GENERAL

**ANTONIO AIZ SALAZAR**

***LAUDIOKO ALKATE-UDALBURUA* / EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE LAUDIO**

LAUDIO
LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**